

Itzulpena Auzitegietan eta Administrazioan

ANJEL LOBERA*

Itzulpena Auzitegietan eta Administrazioan izenburua jarri zidaten zuekin ordubete inguru jarduteko asmoz. Aitortu behar dut hona etorri aurretik begiratu diodala izena eman duzuenon zerrendari; horren helburua garbi nuen: noren aurrean hitz egin beharko nuen jakitea, bai jatorriari dagokionez, bai eta lanbideari dagokionez ere.

Bestalde, izenburua bera zabalegia da beraren osotasunean itzultzaileen zereginari oratzeko. Hortaz, deliberamendu bat hartu dut: gaur egun auzitegietan eta Administrazioan itzultzaileek ditugun zereginetarik batzuk hartu eta beraiek jorratu: itzulpenaren ikuspegi edo alderdi ideologiko-politikoak; gaztelaniaren eragina eta itzulpen arazo batzuk.

Auzitegietan

Hego Euskal Herriko auzitegietan eta Madrilgoetan diharduten itzultzaileek badute hasierako jokaleku bat: Espainiako Zuzenbidea, eta Zuzenbide horrekin lanean dihar-

dutela, badute helburu behinena: segurtasun juridikoa. Izan ere, beraien lanetik etor litezkeen ondorioak Zuzenbidearen esparrukoak dira; ekonomi eraginez gainera, zigor eraginak, erantzukizunekoak eta beste arlo batekoak izan ditzakete. Bi esparru hartuko ditut kontutan: zigor arloa eta lan arloa. Aukeraketa erabat hautabidezkoa izan da, eta gogoan izan dut horretarako eremu horiek euskal gizartean duten eragina.

Zigor arloa

Auzitegietako itzultzaileek arlo honetan dute, beharbada, euren lanik latzena, batik bat, euren lanak dakartzan ondoreek oso oihartzun zabala hartzen dutelako euskal gizartean.

Baina goazen adibideekin:

Zelan itzuli beharko dira euskarara: *'homicidio'* eta *'asesinato'*? Izan ere, itzuli bai, itzuli egiten dira, baina nor den itzultzailea, ordain bat edo beste aurki liteke. Hori zuzendu behar den arazoa da, bestela, ezinezko gerta-

* Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzailea.

tuko bailitzateke irakurle euskaldunarentzat jakitea zer irakurtzen ari den.

Jabetzaren aurkako delituetan ere, hone-lako kasuok azter ditzakegu: *'robo'*, *'hurto'*, *'sustracción'*, *'apropiación indebida'*. Hauek ere batu behar dira, eta modu batera itzuli, beti ere segurtasun juridikoari begira.

Konturatu zaretenez, arazo gogorak eta ondore arras bestelakoak izan dituzte erakunde horiek.

Eta zer jazotzen da, epaituek egiten dituzten aitopen eta adierazpenekin? Zer da itzuli behar dena? Zcin da modurik egokiena itzulpena egiteko? Aldi bereko itzulpena ala esan ostekoa?

Arazo asko eta korapilatsuak dira horiek guztiak eta kontu handiz ibili behar da norbanakoen askatasuna kolokan dagoelarik. Hori dela eta, Euskal Herrian famatu bihurtu zen *Camarero kasua* aipatu nahiko nuke hemen. Judizioaren une baten, fiskalak epaituari euskaraz itaundu zion *"ea pelea bat ikusi zuen"*; erruztatuak, berriz, hauxe ihardetsi zuen: *"Bai, jipoi bat ikusi nuen"*. Ageri denez, erantzuna gaztelaniara pasatzerakoan arazo bat sortzen da: *"Sí, vi una paliza"* (hitzez-hitzezko itzulpena) ala *"Sí, vi una pelea"* (itaunari eman beharreko erantzun logikoa). Ondoreak erabat ezberdinak izan daitezke.

Lan arloa

Lan arloa denaz bezanbatean, itzulpenaren alderdi ideologikoa aztertu nahi izango nuke beren beregi. Arlo honetan eufemismoak sarritan erabiltzen dira. Horretara, urte gutxiren barruan "Magistraturas de Trabajo" izendaziotik "Juzgados de lo Social" izendaziora igaro da. *'Trabajador'*, *'empresario'* eta gisa horretako berben orde, *'empleado'*, *'em-*

pleador' hitzak erabiltzen dira. Nahita erabiltita, bestalde.

Eta horrek ideologiaren aldetik duen eragina ikusita, itzultzailearen lanak berebiziko garrantzia hartzen du; izan ere, eta euskarari gagozkiolarik, arazoa ez da *'langile'*, *'ugazaba'* euskal hitz jatorren eta *'emplegatu'*, *'emplegatzaille'* erdal hitzen artean aukeratzea, ez bada ideologiaren aldetik pisu nabaria duten *'langile'*, *'ugazaba'* berben eta askozaz neutroagoak diren *'emplegatu'*, *'emplegatzaille'* eleen artean.

Itzultzaileak bere bezeroari eman behar dio zerbitzua; hortaz, bere ideologia alde batera laga beharko du eta jatorrizko idazkiaren idazleak erdietsi nahi dituen xedeak lortzeko erabili dituen hitzen baliokide dinamikoak topatu behar ditu; horregatik, nire ustez bederen, itzultzaileak jatorrizko testuan ageri den edukia ahalik zehatzen emateko horri egokituriko hitzik egokienak erabili behar ditu. Ikus ditzagun testu biok horren adibide gisa:

Los empresarios impondrán las condiciones de trabajo de sus asalariados en la empresa.

Los empleadores establecerán las condiciones de trabajo de los empleados en la empresa.

Ez dago zalantzarik, testu bietan gauza berdintsua esaten da, baina esateko moduak jarrera bi eman nahi ditu aditzera, edo behintzat itxura ezberdinak izan nahi dituzte. Euskaraz ematen den ordainean ere, idazlearen asmoa hartu behar da aintzat, bestela iruzur egingo genieke idazleari eta irakurleari.

Bide beretik doa garai bateko "Magistraturas de Trabajo" izendazioa aldatzea; horre-

tara, "Juzgados de lo Social" izendazioa ematen da. Horregatik, "Gizarteko epaitegi" izendazioa erabiltzeak bi ondorio ditu: euskaraz, gaztelaniaz bezala, zama ideologikoa leuntzen da batetik; bestetik, berriz, izendazioaren aldatetak erdietsi nahi dituen helburuak euskaraz ere gertatzea ahalbideratzen da.

Administrazioan

Auzitegietan itzultzaileek egin behar duten lanak gizartean eragin handia duelarik, Administrazioko itzultzaileok egiten dugunak, berriz, ez du ia oihartzunik gizartean. Izan ere, hori jazotzen da, euskarak Administrazioan duen zeregina sinbolikoa delako.


Izan ere, Euskal Herrian bi hizkuntza ofizial daudenez, aukera dugu administrazioagiriak hizkuntza bietan idatzita aurkitzeko, berbarako, aldizkari ofizialetan zutabe bikoitza erabiltzen da, ezkerretara euskarazko testua agertu eta eskuinetara gaztelaniazkoa ageri delarik.

Inprimakietan, aldiz, ondoko moduok erabiltzen dira: 1) aldizkari ofizialetan ageriden moduan, zutabe bikoitzekoa; 2) beste batzuetan, orrialde bat euskaraz, eta bestea gaztelaniaz; 3) goiera biko lerrokoa, lerro bat erdira, euskara goian eta gaztelania behean ageriaz; eta 4) modu askotariko inprimakiak: goiburuan, goiera biko lerroa edo euskara eta gaztelania bata bestearen ondóan, ezkerretara ekarrita, ondoren lerro bat ageri delarik betetzeko, baina edukia zutabe bikoitzean. Arazo hau denaz bezanbatean, nabarmendu behar da Katalunian ez bezala gertatzen dela, ze herrialde horretan joera dute, ahal delarik, administrazio-agiriak elebakarrak izan daitezen.

Norentzat itzultzen dugu?

Berau dugu Administrazioko itzultzaileok arazorik handiena. Askok diote ez dugula inorentzat itzultzen, euskarazko alderdia irakurtzen ez da eta. Beste batzuek, berriz, badiote geroago eta jende gehiago hurbiltzen dela euskarazko testuetara informazioa jasotzeko. Egia esan, bigarrenera bidean gabiltzala uste badut ere, artean arazo izugarriak ditu euskal irakurleak Administrazioko testuak irakurtzeko.

Dena dela, jatorrizko bekatu modu bat egiten izan dugulakoan nago. Euskaldunentzat idatzi nahi izan dugu eta hori okerreko ustea da, oro har. Badakit askok zuen baitan esan duzuen eroturik nagoela. Baliteke, baina gauza batzuk argitu beharra dago: testu motak bereizi behar dira beraien jasotzaileak bereizteko. Hau da, testu batzuk hiritarrek eurek jasotzen dituzte eta horiek oso hizkera arruntean eman behar dira eta ez bakarrik hitzei begira, ez bada joskerari eta morfologiari begira ere. Adibidez, ehizan jarduteko



kanpaina baterako baimenak eskatu behar direnean, bertoko hiztunek darabiltzaten berbak erabiliko dira; hortaz, eta muturreko adibide bat ipinita, Bizkaiko Txorierriko biztanleentzat *luki* berba erabili beharko dugu, Lea-Artibaiko batentzat *azeri* darabilgun artean. Eta hori Bizkaiaren eremuan bakarrik. Era berean, sozietiboaren marka jartzeko orduan ere, Txorierrin *-gaz* eta *-kaz* darabiltzagun bitartean, Lea-Artibain *-gaz* eta *-kin* erabili beharko ditugu etab.

Badaude beste testu batzuk, ostera, hiritarrengandik hurbil egon arren, eurek axaletik baino ezagutzen ez dituztenak; horretara, udalekuetako kanpainetara umeak eroan nahi dituzten gurasoek paperak ezagutu bai, baina euren seme-alabek ikasten duten ikastegiko zuzendariak beteko dituzte. Gauza bera jazotzen da nekazariarentzat egiten diren eskakizun askorekin ere, ezik beraiek egin beharrean eskualde bakoitzean nekazariarentzat zabalik dagoen bulegoak betetzen ditu paper horiek. Horrelako kasuotan hizkuntza estandarizatuagoa erabil dezakegu eta, bide batez, euskara batua gizartean txertatzeko bidea dugu.

Azkenik, baditugu beste testu batzuk lege, zerga eta merkataritzako eragileentzat zuzentzen direnak, hala nola, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa etab. Hori horrela delarik, nire ustez behintzat, guk ez dugu zertan itzuli euskaldun guztientzat, ez bada eragile euskaldun horientzat. Izan ere, *jesapen*, *atxikipen*, *kenkari*, *ibilgetu* eta antzeko berbak euskaldun arruntarentzat ezezagunak badira, zer dira, esaterako, gaztelaniadun batentzat *empréstito*, *retención*, *deducción*, *inmovilizado* etabar. Barka ieza-

dazue pasadizu hau kontatzea: 1983. urtea Madrilen eman nuen soldadu. Ni nengoen kuarteleko brigada batek errenta aitortpena egin niezaion eskatu zidan; paperen artean etxea jatzeko erabilitako altzarien faktura topatu nuen; horrek balio ez zuela esan nionean, horra zer bota zidan: «—*Oye, pero no desgravan los bienes muebles?*». Jakina, hark ez zuen zertan jakin ondasun higikorrek, legegaren ikuspegitik, zerikusi gutxi dutela altzariekin.

Ikus dezagun, adibide praktiko bat: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/91 Foru Arauaren xedapen gehigarrietarik hamargarrena:

10ª. Transmisión a no residentes de valores con cupón corrido.

Uno. En las transmisiones de valores de la Deuda Pública con rendimiento explícito para los que se haya establecido un régimen especial de devolución a no residentes de las retenciones practicadas, efectuadas dentro de los 30 días inmediatamente anteriores al vencimiento de su cupón, por personas físicas o entidades no residentes en España sin establecimiento permanente en España, tendrá la consideración de rendimiento del capital mobiliario para el transmitente la parte del precio que equivalga al cupón corrido del valor transmitido. Dicho rendimiento será objeto de retención a cuenta, que será practicada por la Entidad Gestora del Mercado de Deuda Pública en Anotaciones que intervenga en la transmisión.

10. Ez-egoiliarrentzako kupoi korritudun baloreen eskualdaketa.

"Bat. Etekin esplizitudun herri zorreko baloreen eskualdaketat, balore horientatik

ez-egoilarrei egiten zaizkien atxikipenak itzultzeko araubide berzia ezarrita dagoelarik, baldin eta atxekipenak kupoiaren mugaegunaren aurre-aurreko 30 egunen barruan egoitza Bizkaian duten pertsona fisiko nahiz erakundeek egoitza Espainian ez duten pertsona fisiko nahiz erakundeentzat egiten badituzte, berauek Espainian establezimendu iraunkorrik ez badute, higikorren kapitalaren etekintzat, eskualdartzailarentzat, eskualdatzen den baloarearen kupoi korrituaren pareko perezioaren zatia hartuko da. Etekin hori kontura atxiki ahal izango da, eskualdaketan esku hartzen duen Herri Zorraren Merkatuko Erakunde Kudeatzaileak Idaztoharretan egingo baitu.

Hortaz, horixe diot berriz ere: testu teknikoak, edozein hizkuntzatan, eragile teknikoentzat egin behar dira. Hala ere, testu tekniko hauek egiten dituzten askok eta askok gauza bi nahastatzen dituzte: gai teknikoa aztertzea eta hizkuntza ulertezina erabiltzea. Izan ere, goiko adibidea askozaz errazago eman zitekeen. Alde horretatik, itzultzaileok badugu arrazoi apur bat honako hau esaten dugunean: «*Jatorrizko testua ulertezina da*». Beste adibide bat Jesús Prieto de Pedro¹ ematen digu. Benetan bitxia, alajaina!

1979ko apirilaren 14ko Ministro-agindua, farmaziak jartzeko distantziak neurtzeari buruzkoa, ehun eta berrogeita hamartsu hitz dituen, alegia:

«9. art. 1. La medición de las distancias se practicará por el camino vial más corto, siguiéndose una línea ideal de medición, con arreglo a las siguientes normas: Se partirá del centro de la

fachada del local que ocupe la Oficina de Farmacia establecida, prescindiendo del o de los accesos a la misma, y, siguiéndose por una línea perpendicular al eje de la calle o vial al que dé frente dicho centro de fachada, se continuará midiendo por este eje, ya sea recto, quebrado o curvo, cualquiera que sean las condiciones o características de la calle o vial, hasta encontrar el eje de la calle o calles siguientes, prolongándose la medición por dicho eje hasta el punto de que coincida con la intersección de la perpendicular que pueda ser trazada, desde el centro de fachada del local, propuesto para la farmacia que pretende instalarse o trasladarse, al eje de la calle o vías para la que viniera practicándose la medición, continuándose por dicha línea perpendicular hasta el centro de la fachada de este último local.

Cuando las perpendiculares a que se refiere el párrafo anterior arrojen distinta longitud, según que se tracen desde los centros de las fachadas a los ejes de calle o desde éstos a los centros de las fachadas, se computará la que produzca una distancia menor entre los locales.»

Egia esan, gure botikak jasotzeko, farmaziak agindu horien arabera jartzeari begira egon behar badugu, hobe dugu gaixotzen ez bagara!

Horren orde, Jesús Prieto de Pedrok ondoko proposamena egiten du:

«La distancia se calculará sumando:

1. Las dos perpendiculares que van desde el centro de las fachadas de la farmacia instalada y de la que se pretende abrir, al eje de sus respectivas calles.

2. La distancia entre ambas perpendiculares, medida por el eje de la calle o calles, y por el recorrido más corto.»

1. PRIETO DE PEDRO, Jesús: «Los vicios del lenguaje legal. Propuestas de estilo». *La calidad de las leyes. Txosten eta Agiriak*. Eusko Legebiltzara. Gasteiz. 1989.

Horixe da itzultzaileok gaur egun pairatzen ditugun arazo txarrenetarikoa: jatorrizko testuen kalitatea. Bigarren arazoa, jakina denez, denbora da: «*Hau atzoko behar diat*» esaten digute sarri askotan. Hirugarren arazoa, berriz, orojakileak izatea, ezik denetik jakin behar dugu.

Jasotzailearen arazoa ikusita, jo dezagun beste arazo handi batera: itzultzaileen prestakuntzara.

Itzultzaileen prestakuntza

Historia laburra

Euskal Autonomia Erkidegoan 1981. urtean ekin zitzaion administrazio itzulpen lanari. Egia esan, ia tradizioz gabea zen lanari ekin behar izan zitzaion, ezik Euskal Herriko administrazioetan betidanik gaztelania izan da nagusi paperetan, bai eta udalerrri euskaldun hutsetan ere. Horretara, 1936. urtetik 1937. urtera bitartean argitaratu zen *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*-n egindako lanetik aparte, ezer gutxi genuen euskal administrazioan. Eta hor azaldu zen Josu Oregi zena. Bera izan zen urte horietan Administrazioaren agiriak euskaraz jartzeko arduraria hartu zuena. Aintzat hartu behar dugu beraren lana, eskergea izan zen-eta.

Berak jorratu zuen bidetik eskola bat nagusitu zen, ondoko ezaugarriak zituen:

- 1936-37ko autonomi epealdiaren tradizioarekin bat egin nahi du.
- Garbizalea, hura bezalaxe, ahalik eta mailegu lexikal gutxien erabiltzeko ahaleginak egiten ditu.
- Lehentasuna eman nahi dio euskaldunaren ahozko adierazpenen tradizio-

ari, nahiz eta terminoen zehaztasuna galdu; nolahi ere, garbizalea denez, hizkera tradizioz urruntzen da.

- Deklinabide konposatu eta hitz-elkarretara askotan jotzen du.
- Autonomia handiagoa eman nahi dio euskarazko testuari, gaztelaniazko testuaren aldetik.
- Politikari gagozkiolarik, euskal abertzaletasunaren sektorerik tradizionalekin lotuta dago.
- Euren kokaerari begira, Autonomi Administrazioaren eta Eusko Legebiltzarraren organo nagusietan ezartzen da.

Horren aurrean beste eskola bat sortu zen UZEIren (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearen) inguruan. Ondokoak dira beraren ezaugarriak:

- Hizkuntza modernizatzeko eta erabilerari arabera moldatzeko ahalgintetan dihardu.
- Espanierazko terminologiaren fiabardura eta zehaztasuna ahalik gehiena zaindu nahi ditu, aldi berean mailegu lexikalak askozaz errazago onartzen dituelarik.
- Beste eremu batzuetan, batez ere, irakaskuntzan eta komunikabideetan ematen diren gertaera eta garapenarekin bat egin nahi du.
- Hiriguneetako hizkerarenganako hurbiltze handiagoa lortu nahi du, eta hura mailegu lexikalez beteta dago.
- Euskal gizartearen sektore berritzaileekin lotuago dago, bai eta euskalduntze eta alfabetatze mugimenduetan ere.

- f) Batez ere, foru eta udal administrazioetan kokatuta dago, batez ere Gipuzkoan.

Itzultzaile ikasketak

Giro honetan Martuteneko Itzultzaile Eskola sortu zen. Lehenengo itzultzaileen harrobia izango zena. Urteak joan urteak etorri, Administrazioan lan egin zuten lehenengo itzultzaileek bertotik urten zuten. Ez guztiak, ostera. Izan ere, beste itzultzaile batzuek beste jakintzagai batzuetatik urten zuten. Hori, zer dela-eta?

Izan ere, 1981. urtean eta ondorengoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez dute hizkuntz politika bateraturik. Hori dela eta, Administrazioan denetarik aurki daiteke: administrari-laguntzaileen pareko itzultzaile lanpostuak (Bilboko udalean, esaterako); administrari mailakoak (Gipuzkoako Aldundian); eta goi mailako teknikariak (HAEE eta Bizkaiko Foru Aldundia).

Laneratzeak jartzen zituen oztupoak, Administrazioak Martuteneko Eskolari laguntzak murriztea eta beste arazo batzuk tar-teko zirela, atek itxi zituen lan bikaina egin zuen eskola honek.

Geroago, Deustuko Unibertsitateak lehenengo, eta Euskal Herriko Unibertsitateak ondoren, itzulpen masterrak zabaltu zituzten. Eta master horiek badute berezitasun bat, alegia, master horietan izena eman ahal izateko, ikasleek goi mailako tituludunak izan behar dute. Horrek, gero eta behin, itzulpen-

gintzari beraren maila garrantzitsua onartzea esan nahi du.

Hori dela eta, zer esanik ez, asko hobetu da itzulpenen kalitate maila hasierako urteetatik gaur egungo errealiterara arte. Hala ere, kontutan hartu behar dugu, garai haietan lan egin zuen jendeari eskerrak eman beharrean gaudela.

Administrazio itzulpenaren arazo teknikoak

Gatozen orain euskal itzultzaileok ditugun arazo tekniko nagusiak aipatzera. Asko dira eta sarritan konpontzeko gaitzak. Arazo hauen artean, gauza asko nahastatzen dira, gizarteko arazoak, norbere arazoak, giroko arazoak...

Tradiziorik eza.— Euskal Administrazioetan, lehen esan dudan legez, oso gutxi dira euskaraz egin diren testuak. Honetan Gotzon Egiak egindako lana aipatu behar da nahitaez².

Hamalau eskuizkribu jasotzen ditu artikulatu horretan, hainbat lekutatik barreiatu-rik zeudenak batutakoan. Testurik zaharrena 1683koa da eta berriena 1876koa.

Testu horien gaiak lautara biltzen dira: 1) azienden larreratze eta bazkak mugakideen artean piztutako arazoak; 2) lapurretek eragindako epaileen ikerkuntzak; 3) salerosketa eta diru-kontuak; eta 4) Administrazioari aurkeztutako eskabideak.

Bestalde, testu horien jatorriari dagokio-larik, hauxe esan behar da: hamar, lapurta-rrek eginak dira; beste hiru, nafarrek egin

2. EGIA GOIENETXEA, Gotzon: «Euskal administrazio izkribu zahar batzuk», *Senez*, 7. urteko 1. zenbakia (79-104. orr.), EIZIE. Donostia. 1992.

dituzte; eta bat bakarrik egin dute mende-
baldeko euskaldunek, berak lapurteratik
duen eragina nabaria bada ere.

Hortaz, oso iturri gutxi izan dugu euskal
itzultzaileok Administrazioaren alorrean gure
lanari ekiteko. Horregatik, beharbada, hasie-
rako urteetan ekin genion lanari itsu-itsuan
eta *deus ex machina* antzera abiatu ginen
Euskal Administrazioaren euskara sortzen.
Hori dela eta, lehenengo urteetako zalantzak
eta gorabeherak ulertzekoak dira. Gainera,
horri beste arazo bi gehitu behar dizkiogu:
hiztegi arau-emailerik ez izatea eta gramatika
arau-emailerik ez izatea. Horrek guztiak eka-
rri du gaur egun arragotuta egon beharko
zuen hizkera artean lankizun egotea.

Administrazio terminologia.— Berau izan
da eta gaur egun ere bada zoritxarrez Euskal
Administrazioiko itzultzaileok dugun arazo-
rik behinena. Izan ere, lehen aipatu ditudan
eskolak ez dira eraberekoak izan; hortaz, gaz-
telaniazko testuetan agertzen zen termino
baterako, euskarazko testuetan bi edo gehia-
go ager zitezkeen; gaur egun, egoera hobea
bada ere, oraindik arazo hau konpondu ba-
rik dugu. Horrela, euskal irakurleek horre-
taz jabeturik gaztelaniazko testura jotzen
zuen, ez baitzuen euskal ordainean batere
konfiantzarik. Adibidez, *atal* testu batzuetan
artículo-ren ordaina zen bitartean, beste ba-
tzuetan *apartado*-rena zen. Eta gauzak apur-
ka-apurka konpontzen badoaz ere, egunokin
Hegoaldeko lau aldundietako ordezkariak,
HAEkoak, HPINekoak eta UZEIkoak eus-
kara batzeko egiten diharduten batzarretan,
lege-testuen atalak (horra, zer gauza garran-
tzitsua!) idazteko, joera bikoitza onartu dute.

Izan ere, gaur egun, ondoko terminolo-
gia dago finkaturik: a) Pertsona Fisikoen
Errentaren gaineko Zergaren inprimakiak; b)

Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne
Errotulazioa; c) Bide-seinaleak; d) Nekazari-
tza arlokoa. Lehen aipatu dudan hori *in fieri*
dago artean ere.

Ez nuke atal hau amaitu nahi honetan
guztitan egundoko eragina izan duen arazo
bat aipatu gabe utziz. Izan ere, nire ustez,
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak
garai baten egundoko aukera galdu zuen
Administrazioiko euskara normalizatzen.
Katalunian jorraturako bidea, adibidez, ona
izango zen guretzat. Horretara, terminolo-
gia finkatzeko bide bat erabili barik gelditu
da, eta gaur egun horren ondorioak ordain-
tzen gabiltza. Izan ere, guztien adostasuneko
agintaritze falta izan dugunez, norik bere bi-
deari eutsi dio eta, guztiok dakigunez, behin
bide bati ekinez gero, gaitz egiten zaigu atze-
ra joatea. Eskerrak, lema zuzentzen hasiak
garen, lehengo adibideek frogatzen dutenez,
baina arazo hau konpontzen ez den artean,
gure lana herren ibiliko da.

Esapideak.— Arazo honek ere tradizio fal-
tan du bere sustraia. Horri garai bateko pres-
takuntza falta gehitzen badiogu, gaztelaniaz
hausnartu eta euskal jazkera duten testuak
ditugu emaitza. Adibide gisa, euskal errepi-
deetan sarritan ageri den bat jarriko dut:
norabide aldateta, zer esateko eta *cambio de*
sentido.

Bestalde, gaztelaniazko esapideak maile-
gatu egiten dira eta arazoak sortzen dira, hala
nola, *‘oponer a’*-ren ordain gisa, sarritan *‘ri*
aurka jarri’ ageri da, eta, guztiok dakigun
legez, posposizio horrek ez du datiboa eroan
behar, ez bada genitiboa: *‘ren aurka jarri’*.
Niretzat, hemen azaltzen dira arazorik txar-
renak.

Arazoak sortzen dira, gainera, gaztelaniaz-
ko esapideak ikusieran, esapide legez ulertu

beharrean, berba bi edo hiruren legez hartzen dugunean. Horretara, *la Administración actuará de oficio* esaeran, hainbat testutan *de* eta *oficio* berben hitzez-hitzeko itzulpena azaltzen da, noiz eta *de oficio* esapidearena azaldu beharko litzatekeenean; hortaz, sarritan, *ofizios* azalduko da *-ren arioz* azaldu beharrean. Horrelako kasuak ugari dira administrazio testuetan.

Bestalde, gaztelania darabilten eragile administratiboak oso hanpatuak dira idazkeraren aldetik; horri segitu egin zaio, gure idazkera sortu beharrean, eta urte askotan behintzat, testu hanpatu bati itzulpen hanpatuago bat zerraion, nahiz eta itxuraz bigarrena lehenengoa baino aurrerago egon. Badakizue, paperaren irusakoak!

Maileguak.— Eta euskal administrazioiko euskal itzultzaileen artean arazo eta eztabaida gehien sortarazi duen arazora heldu gara. Izan ere, lehen aipatutako eskolen jarreretik tinko eutsi zioten euren jarrerari eta amorekaitz jardun zuten urte askotan zehar. Badakizue, oñaztarrak eta ganboarrak!

Arazoa, esapideetan legez, maileguak beti hizkuntza batetik bestera etortzea da: hau da, gaztelaniatik euskarara eta horrek egundoko eragina izan du euskal administrazioiko testuetan. Honetara etorritz gero, zerbait esan behar delakoan nago, behar den mailegu asko ez da erabiltzen eta, aldiz, behar ez den asko erabiltzen da.

Bakoitzetik adibide bat ipiniko dut. Horretara, behar dugun mailegu bat gaur egun Administrazioan exkax ageri dena: *tributu*; gaztelaniazko *tributo* esateko nahitaezkoa dena erabili beharrean, *zerga* erabiltzen da; eta jakina: Espainiako Zuzenbideko *impuesto* eta *tributo* nahastatzen dira; eta arazoa ez da berbak nahastatzea, ez bada kategoria ju-

ridikoak nahastatzea. Konponbide bakarreko arazoa da, hau da, mailegua erabiltzea.

Bestalde, berriz, erabili beharrik gabeko maileguak erabiltzen dira; horretara, behar bada irakurle arruntaren mesedetan, *erretentzio* azaltzen da *atxikipen* ordainaren lekuan. Izan ere, horrelako kasuetan, eta euskaraz sarritan erabiltzen izan dugun teknikari eutsiaz, sinonimia erabil dezakegu euskal berba Administrazioaren testuetan txertatzeko; gauza bera esan dezakegu *errendimendu* berbaren inguruan; gainera, horren ordez erabiltzen den berba ezagun da euskal hitzuntz arrunt gehien artean, hau da, *etekin*.

Goiko maileguez arazoren bat edo beste sortu ahal badute ere, ez dute hainbesteko garrantzirik. Askozaz arriskutsuagoak dira esaldiaren joskera moldarazten duten maileguak hartzea. Horretara, eta kategoria batera etorrita, partizipio eragileak izango lirateke okerrenak, baina badaude bestelakoak ere. Adibidez, jo dezagun *kointziditu* erabiltzen dugula *coincidir*-en ordain gisa. Hortaz, *'yo soy coincidente con esa opinión'* itzultzean, *'nik iritzi horrekin kointziditzen dut'* ematen badugu, *'ni iritzi horrekin bat nator'*, *'ni iritzi horrekin ados nago'*... erabili beharrean, agerian gelditzen da zein den esaerak hartu duen taxuera.

Administrazio hizkerak berak dakartzan arazoak

Dena den, Administrazioaren hizkerak berak azaltzen ditu arazorik behinenak. Alde horretatik, eta Ibon Sarasolak esan eta beste hainbatek atzera esan duen bezala, euskarari Europako Mendebaldeko hizkuntzarik *pedanteenekin* bizi izatea suertatu zaio. Hortaz, itzultzaileak kontu handiz ibili behar du

euskarak darabilen berezko etorria zehar-meharretan gal ez dadin.

Ikus dezagun zeintzuk diren Administrazioaren gaztelaniak izan beharko lituzkeen baina sarritan ez dituen ezaugarriak:

1) Esaldi laburrak / esaldi luzeak

Hizkerak esaldiaren laburtasunera jo behar du, batez ere, eraikuntza gramatikalean zailtasun handiagoak dituelako. Bestalde, testua talde batek idazten duenez, zuzengarriak egiteko, askozaz errazago gertatzen direlako esaldi laburretan, esaldi luze eta korapilatsuetan baino: honela sortzen dira solezismoa eta anakolutoa³.

Bestalde, psikolinguisten ikerkuntzek datu bat eman dute argitara: ideiak hobeto ulertu eta buruz ikasten dira errazago, baldin eta esaldi laburrak badira, luzeak direnean baino. Gainera, perpaus luzeen ulermena irakurlearen kultur mailarekin batera doa, esate baterako: *France Soir*-ek 10 hitz erabiltzen ditu esaldiko, *Le Monde*-k 20 (*El País*-en *Libro de Estilo*-k ere 20). Muga 30 hitzetan dago, ezen hortik gorako esaldiak unitbertsitateko jendeak bakarrik aditzen ditu.

Hala ere, légezko hizkerak esaldi luzeetara jotzen du, batezbestekoa 25 hitzetan dago. Egin behar ez denaren adibide gisa, jar dezagun Langileen Estatutuko 40.1. artikulua, zeinek 88 hitz dituen:

«Movilidad geográfica.

1. Los trabajadores, salvo los contratados específicamente para prestar sus servicios en

empresas con centros de trabajo móviles o itinerantes, no podrán ser trasladados a un centro de trabajo de la misma empresa que exija cambios de residencia, a no ser que existan razones técnicas, organizativas o productivas que lo justifiquen o bien contrataciones referidas a la actividad empresarial y lo permita la autoridad laboral, previo expediente tramitado al efecto, que deberá resolverse en el improrrogable plazo de treinta días, entendiéndose que el silencio administrativo tendrá carácter positivo.»

Hau, esaterako, puntuazio zuzena erabiltz, honela bota zitekeen:

«1. Los trabajadores no podrán ser trasladados a otros centros de trabajo de la empresa que exijan cambio de residencia, salvo los contratados por empresas con centros de trabajo móviles o itinerantes.

2. Sin embargo, la autoridad laboral podrá autorizar dichos traslados por razones técnicas, organizativas o productivas, a solicitud de la empresa interesada.

3. La solicitud se resolverá en el plazo de 30 días; de no existir resolución expresa dentro de ese plazo, se considerará estimada.»

Horrexek izan beharko luke itzulpenaren abioa.

Zuzenbidezko hizkeraren beste adierazpide batzuek (literatura juridikoa) malgutasun handiagoa izan dezakete esaldiaren luze-dera dela eta, ez ordea, légezko hizkerak.

Esaldi laburra pentsamenduaren antolaketa logiko eta psikologikorako gonbitea da, ideiak ondo antolatu eta bereiziz, horretarako honako hauek erabiltzen direlarik: puntu, puntu eta koma, eta puntu biak.

3. Esaldi baten zuzentasunetik urruntzea, hiztunak bere pentsamenduaren hariari amore egiteagatik; sarritan aldiari hasiera emana dioten hitzen erregimenaren ezegokitasuna da, hiztunak mintzatzen hastean haren osotasuna hartu ez duelako. Anantapodotona: aldian koerlatiboak diren termino bietarik bat kentzeagatik sortzen den anakolutoa da.

UZEI: *Hizkuntzalaritza I*: «Perpaus baten eraikuntzan ematen den etadura da anakolutoa; ondorioz, bi zati izango ditu perpausak; zati bakoitza joskeraz egokia izan arren, sekuentzia batean elkartzean, perpaus joskeraz konplexua, ez-normala edota desbideratua emango dute. Adibidez: *atzo erasi nuen liburua, horretan irakurri dut*».

2) Hitz laburrak / hitz luzeak

Hitz luzeek esaldiaren ulergarritasuna eragozten dute, beraz, sinonimo laburragoak hobestekoak dira, luzeen kaltetan, hala nola, «exceso», «extralimitación» baino lehen etab. Bestalde, «mente» atzizkiak amaitzen diren adberbioak kentzekoak dira, laburragoak jartzeko beraien orde:

anteriormente	antes
ulteriormente	después
previamente	antes
posteriormente	después

3) Preposiozko eta adberbiozko esakuneak

Berauek ere ez dute esaldiaren laburtasuna bultzatzen. Gainera, sarri askotan, preposizio nahiz adberbio bakunen ordezkokoak baino ez dira. Hauek oso kontutan hartzekoak dira itzulpenari gagozkiolarik:

en este sentido	así
en este supuesto	así, cuando
con la excepción de	salvo
en la hipótesis de que	si
por esta razón	así
sobre la base de	si, cuando
por otra parte	además

Jakina, horrelako esakuneak euskarara aldatzerakoan, kontutan hartu behar dugu euskaraz ere bide horretatik jo behar dugula; izan ere, hizkuntza malgutzeko bidea ematen digute forma erraztuek besteen aldean eta hori irakurlearen mesedetan da.

4) Esakune espletiboak

Berauek ere ez dute testua inola ere argitzen: «en su caso», «si procediere», «en principio», «si hubiera lugar», «en efecto», «en realidad», «en definitiva»...

Esakune hauek ez dute ezer erasten eta zuhurtasun nabardura bat ematen diote hiztunaren jarrerari, beraz, batzuetan lasai asko ken litezke, baina kasuan-kasuan aztertu beharko litzateke.

Esakune horiek itzulieran jazotzen diren arazo batzuk iruzkindu nahiko nituzke: 1) «en principio» itzulieran, «en un principio»ren ordain gisa ematen da eta *hasieran* jartzen da, *funitsean* jarri beharko litzatekeen lekuan; 2) «en su caso» itzultzerakoan, berriz, arazoa bestelakoa da, ezik garai baten asko erabili zen *kasua balitz* protasia erabiliz gero, horrek apodosia hipotetiko modura erabiltzea dakar. Jakina, gaztelaniazko testuan ez da hori esan nahi, ez bada hiztunaren zuhurtasun kutsua, Jesús Prieto de Pedrok dioen moduan.

5) Erredundantzia anaforikoak

Kontu handiz ibili behar da «el mismo» eta «la misma» anaforikoekin. *Esbozo*-k berak gaitzesten du: badio Administrazioaren hitz lauz eta beste batzuetan larregi erabiltzen dela, formula jantziagoa delakoan. Hortaz, hobe da «*fue registrado el coche y sus ocupantes*», «*los ocupantes del mismo*» baino; «*La fecha es ilegible, pero se lee claramente debajo de ella*» (ez «*debajo de la misma*»).

Arazo hau denaz bezanbatean, badirudi euskaraz ere anaforiko batzuk erabiltzerakoan kontu handiz jo behar dugula. Egin-eginean ere, euskaraz SOV egitura erabiltzeko joera handia dagoenez gero, gerta liteke garbi ez egotea zein den erreferentearen erreferentziala. Hortaz, sarritan informazioa berreskuratut beharko da, bai puntuazioa erabiliaz, bai erreferentziala berriro aipatuaz etab.

6) Gramatikazko eraikuntza paroxitonoak

Hizkuntza idatziaren kalitatea ez datza gramatikazko zailtasunean. Joskera paroxitonoak esanguraren aurrerakuntza eta ulergarritasuna errazten ditu, ez, ostera, eraikuntza konplexuek. Goi mailako literaturek, literatura kultuek, badute euren txokoa hizkera juridikoan, bai eta legelarien idazkietan ere (Garrigues, García de Enterría...), baina sekula ez Administrazioaren hizkeran eta, zorritzarrez, legeen hitzaurreak eta zioen azalpenak badira egin beharko ez litzatekeena-
ren eredu.

Aditza.— Aditza ekintza adierazten duen perpauseko osagaia da, Administrazioaren hizkerak, berriz, hau ahazten bide du eta bazterrarazten ditu era aktiboa, forma pertsonalak, aditz bakunak eta orainaldia, bai eta indikatibozkoa ere. Honen aurrean, berriz, berauek larregi erabiltzen ditu:

- izentzapena,
- aditzaren forma ez-pertsonalak (infinitibo, gerundio eta partizipioak),
- subjuntibozko geroaldia,
- aditza ordezkatzeko duen aditz-ingurukari hau: «aditz hutsa + substantiboa», eta
- era pasiboa.

Aditzaren tempus eta modua.— Hobestekoa da indikatibozko orainaldia erabiltzea, eta subjuntibozko orainaldia eta lehenaldi burutua uztea gramatikazko menpekotasuna adierazteko.

Honek arazo latza dakar euskararentzat, segidari dagokionez, oso erabilia baita honelako formula: «*si hubiere satisfecho las cantidades... será considerado al corriente de sus*

obligaciones tributarias». Kontu handia eduki behar da, euskaraz segida ganoraz emateko, orduan, edo biak errealak, edo biak hipotetikoak izan behar dira.

Aditz-izentzapena.— Administrazioaren hizkerak aditz pertsonalen ordeztasunak erabiltzen ditu, eta horien aditz-eginkizuna argia da, hala nola, «-ión» eta «-idad» atzizkiez amaitzen direnak.

Izentzapena ez da gaitzestekoa, baina kontu handiz erabili beharra dago, bi ondorio gaizto ekartzen baititu: tonubakarreko eta ulergaitz bihurtzen du testua, alegia.

Honela, «a la iniciación» esan ordeztasun, «una vez iniciado», «después de iniciarse» etab., erabil daitezke.

Ingurukaria.— Administrazioak gehien erabiltzen duen ingurukaria honela eratzen da: «aditz hutsa + substantiboa». Aditzak ez dauka berez esangurarik, berau substantiboan baitatza. Hala gertatzen da Prietok *omnibus* deritzen aditzekin, «proceder», «realizar», «tomar», «dar», «hacer» + substantiboekin. Honelako baliokidetasun batzuk jarriko ditugu:

efectuar el control	controlar
estar en posesión	poseer
proceder a la adjudicación	adjudicar
tomar parte	participar
hacer entrega	entregar
efectuar la presentación	presentar

Perpau pasiboa.— Kontuz ibili behar da era pasiboekin, dela arrunta («ser o estar + participio»), dela era pasibo erreflexua («se + verbo»). Kontu handiz erabili behar da. Euskaratzean, ahal dela, era aktiboa nahiago da, bestea baino.

Gerundioa.— Hemen Boletineko gerundioa baino ez dut aipatuko, «ley aprobando

el...», zeinen orde, erlatibo murriztailea irakurri eta itzuli behar baita.

Menpeko proposizioak.— Saihestekoak dira menpeko luze-luzeak eta kateaturiko menpekoak, sarritan, ulergaitasuna ez ezik, solezismo gramatikal eta lexikalak sortarazten baitituzte.


Euskarari gagozkiolarik, Seber Altubez geroztik, ohitura handia dugu, perpaus nagusiko aditza esaldiaren amaierara eramateko, jatorragoa delakoan. Hau ondo badago ere, ez du zertan izan arau finkoa legezko testuak itzultzeko bederen, bestela berauek ulertezin bihur ditzakegulako.

Bestalde, badago arazo larria ezezko estiloarekin. Ezezko bikoitza saihestu beharrekoa da, hala nola, «*La actividad del Defensor del Pueblo no se verá interrumpida en los casos en que las Cortes Generales no se encuentren reunidas...*». Hobe da baiezko estiloa. Hortaz, euskal ordaina emaneran, baiezko idazkeratik abiatu behar dugu.

7) Zehazgabetasun edo anbiguotasuna

Bai Espainiako Estatuko administrazioek, bai autonomia erkidegoetakoek, oso joera nabaria dute gauzak oso modu anbiguoan esateko. Nik ezagutzen dudalarik, Kataluniako administrazioa izango litzateke Administrazioa hiritarrarengana hurreratzeko ahalegin handiena egin duena; Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Herri Administrazioetarako Ministerioak ere euren ahaleginak egin dituzte.

Zehazgabetasun hori modu askotakoa izan daiteke, baina hemen puntu bakarra aztertuko dut lexikoaren aldetikoak.



Lexikoaren aldetik, ondokoa esan behar da: arauaren idazlearen lehen ardurak lexiko bereziki argi eta zehatza lortzea behar du izan. Ezertarako gutxi balioko dute gramatikako arauak, legeetako hitzen esanahiak argi eta mugatuak ez badira. Gramatika hitzen zerbitzupeko tresna da, erregela sistema bat, beraiek zuzen uztartzeko, ez bestelakoa orde.

Hau bide da idazle legegile onaren lanik garrantzitsuenetarikoa. Arrazoiak bi dira: 1) Administrazioan egiten diren xedapenetako hitzak aukeratuera, idazleak kasuan kasuko teknizismoaren (zehaztasuna bermatzen duenaren) eta jatortasunaren (jende guztiaren aldetiko ulergarritasuna bermatzen duenaren) arteko taxuzko neurria lortu beharra duelako; eta 2) egungo egoeran, lexikoak krisialdi latza pairatzen diharduelako, eta krisialdi horrek beste teinkune bat sortarazi du: alde batetik, lexiko arruntaren altxorren urripena (hiztegi arruntak geroago eta

txikiago izatera jotzen du, gero eta gauza gehiago ahalik eta hitz gutxienez adierazteko, beraiek gero eta anbiguoagoak direlarik) eta, bestetik, jargoi teknikoen gorakada geldiezina, beraiek hizkeran, jakinduria berezituak eta teknologiak egun duten garrantzia baieztatu nahi baitute itsu-itsuan («imputar datos» etab.).

Aurreko arazoa gorabehera, arauen idazleak eginkizun handia dauka argitasunaren mesedetan:

- Lexiko arruntaren eta lexiko teknikoaren arteko oreka hobea bilatuz, non bigarrena ahalik txikienera mugatuko baita (*barraskilo* versus *zefalopodo*).
- Lexiko arruntak hizkuntzan errotuen dituen hitzetarik, esangura argi eta zehatzenak dituzten hitzetarik, aukeratu; ahalik eta jatoriasunik handiena aukeratu, alegia.
- Legezko testuetarik hizjariokeria hutsal eta behargabea kenduz.

Lexiko arrunta.— Hizkera bereziak oro hizkuntzaren menpe-menpean daude, beraien aldaera dira eta, legez, euren osagai bereziek indar gutxiago dute arruntek baino. Erregela hau legezko hizkeran ere bete egiten da, lexikoari dagokionez, zein neurri handi batean hizkuntzaren lexiko arruntekoa den.

Hala ere, idazleak ahazten bide du egitate hau sarritan eta lexikoa geroago eta bakana egitera jotzen du, hitz arruntak, euren adiera ezagunenetan, legezko hizkerari ez bailegozkion. Beronek hizkera mordoilo iluna du aterpe eta hiritarrendandik geroago eta urrunago dago. Hona hemen, bada, gaztelaniazko hanpakeria batzuk:

erabilia

constituye
contemplan
instancias
tratamiento
planteamiento

expira
conferir
otorgar

erabili beharko litzatekeena

es
tener en cuenta
organismos
regulación
perspectiva
punto de vista
termina edo finaliza
dar

Eta euskarazko testuetan maizegi bigarren ordainak itzultzen dira, besteak itzulí beharrean; batzuetan, gainera, hanpakeria ez ezik, oker egiten delarik, hala nola, *constituyeren* ordain gisa *osatzen du* ematen denean etab.

Bereziak dira honako hauek ere: «cumplimentar», «complementado», «puntual», «prerrequisito», «disponibilidad», «asignar», «configuración», «asunción», «priorizar», «dinámica», «se desprende», «minimizar», «tendencial», «amplio espectro», «incardinar», «cauce normativo», «determinar la procedencia», «flexibilizar», «marco», «extra-», «hiper-», «super-», «ni-», «re-», «co-», «anti-» etab. Guztiok alda daitezke hiritarrek errazago uler ditzaketan beste batzuk ezartzeko, testuinguruen arabera. Gainera, hitz horiek ez dira nahitaez erabili behar legezko xedapenak behar bezala emateko. Adibide gisa, hona hemen Herriaren Defendatzaileari buruzko Legea, Langileen Estatutua eta Urei buruzko Legea.

«Esta disponibilidad debe lograrse sin degradar el medio ambiente en general, y el recurso en particular, minimizando los costes socioeconómicos y con una equitativa asignación de las cargas generadas por el proceso, lo que exige una previa planificación hidrológica y la existencia de unas instituciones adecuadas para la eficaz administración del recurso en el nuevo Estado de las Autonomías.»

Prietok, adibidez, lerroaldearen egitura gramatikala aldatu gabe, honako hau proposatzen du:

«La explotación del agua debe llevarse a cabo sin daño alguno para el medio ambiente, ni para la propia agua, con el menor coste social y económico, y con un justo reparto de las cargas...»

Beste adibide bat 1986ko uztailearen 7ko Ministro-Agindua da, —zeinek Administrazioaren hizlauru ondo idazten erakutsi nahi baitu—; idazpurua honako hau da:

"Orden Ministerial de 7 de julio de 1986 por la que se regula la confección de material impreso y se establece la obligatoriedad de consignar determinados datos en las comunicaciones y escritos administrativos"

"Orden Ministerial de 7 de julio de 1986 sobre el lenguaje y requisitos formales de los escritos administrativos" [Prietoren ustez, askozaz ulerterrazagoa da].

Eufemismoak.— Beren gordintasunean azalduz gero min eman dezaketen ekintza nahiz ideiak adierazteko erabiltzen den edozein era leundu edo gozatua da eufemismoa. Eufemismoa, esan nahi denaren kontrakoa adierazten duen hitz nahiz esaldi bat erabiltzera irits daiteke.

Eufemismoak berebiziko garrantzia du hizkuntzalariarentzat, ezik debeku ezartzen du, zenbait pertsona, animalia eta gauzaren gainean ez ezik, beraien izenen gainean ere. Kasurik gehienetan, tabupeko hitza bertan behera utzi eta kaltegabea ordezkoa jartzen da, eufemismoa alegia, haren orde. Honek, sarri askotan, ordezkoaren adierazpenari aldatetaren bat ekartzen dio eta honela tabua aldateta semantikoen kari garrantzitsuenetarik bihurtzen da. Jakina, gauza nahiz eragiketara higuinargiak edo ezinikusizkoak zu-

zenezan izendatzen dituzten hitz nahiz adierazpen guztientzat goizago edo geroago ordezkoak jartzen dira. Orduan, ordeztuak herri-hizkeran hartzen du aterpe, hiltzen ez denetan.

Hortaz, eufemismoak ez dira funtsean zertan arbuia: gizabidetasunari heltzen diotenak, sexu bereizkeria baztertu nahi dutenak etab., bidezkotuta daude.

Baina badira beste batzuk, berriz, inolako biderik ez dutenak, zeren eta baten izacra abstrakzio semantikoaren poderioz lortu nahi baitute, hala nola, «tercera edad», Gizarte Segurantzari buruzko legerian, edo «profesor de Enseñanza General Básica», «Centro Docente», «Bachillerato unificado y polivalente» etab., 1970eko abuztuaren 4ko «Ley General de Educación»ek ekarri baitzituen. «Tercera edad» aukeratzea ez da zuzena izan, «viejos» gutxiesgarria delako, eta «ancianos»en hedadura murriztagoa delako; gainera, beste bereizkeria lexiko bat ezartzen du, beronek haren mailakoak beste modu batera erabiltzen dituelako, hala nola, «infancia y juventud», Konstituzioko 20 eta 48. art.etan. Bestalde, «profesor de Enseñanza General Básica», «Centro Docente», «Bachillerato unificado y polivalente» eufemismoekin, «maestro», «escuela», «enseñanza secundaria o bachillerato» sustraituak alboratu dira, eta erabiltzaileak derrigortuta daude adjektibo edo esapideekin zehazten, eta azkenean siglara jo behar da: BUP etab.

Eufemismoak sailkatzeko, Ullman-i jarraituz, hizkeraren tabuak hiru sailetan sailka ditzakegu, haien atzetik dagoen psikologiazko eraginaren arabera: beldurrak eragindakoak, urguritasunezkoak, eta begirune eta deduak eragindakoak.

Administrazioaren eufemismoaren kariak ondoko hauek dira:

Garestitzeak estaltzeko erabiltzen diren eufemismoak.— Administratuek, prezioen igoerekiko, zergen gorabehera handiekiko, tarifen igoerekiko etab. duten ezinikusia; honek behartu egiten du Administrazioaren hizkera, termino hauek saihestu eta eufemismozko ingurukariz betetzeko. Badirudi Administrazioa beldur edo izu dela, gertakari horien izenek administratuei ekar diezaiaketen ondoreaz. Garestitzeak estaltzeko erabiltzen diren eufemismoak: «reconstrucción global de todo el sistema de precios», «modificación de tarifas», «nueva estructura de la tarifa y de los niveles de primas», «actualización de precios», «reestructuración del seguro de automóviles». Nire ustez, horiek zaindu behar dira, baldin eta ikuspegi ideologikotik markatuta badaude.

Zenbait kontzeptuk gizartean jasaten duen desprestigioaren ziozko eufemismoak.— Administrazioaren beste eufemismo batzuk, berriz, aipamenak gizartean jasan duen izengaleraren araberakoak dira, hala nola, «pobreza», «ancianidad». Zenbait kontzeptuk gizartean izena galtzen dutelako eufemismoak: «comarcas deprimidas», «perfil socioeconómico no evolucionado», «comarcas deprimidas de economía de montaña». Euskaraz, berriz, horrelako batzuk ezin zain daitezke eufemismo bidez, ezik *eskualde etsia*, berbarako, erabiltzen bada, lehenengo eta bat ez da baliokidetasun dinamikoa zaintzen, eta, bestetik, otoitzeko malko-harana dela uste izango genuke; hortaz, *eskualde behartsu* eta *gisakoak* erabili beharko dira.

Gizarteak kaltegarritzat hartzen dituen aipamenak saihesten dituzten eufemismoak.— Administrazioaren hizkerak erabiltzen dituen eufemismo batzuek, bestalde, gizartean nekagarritzat hartzen diren egoerak arindu nahi dituzte, elbarritasuna alegia: «trabajadores de edad madura y minusválidos», «Centro de Rehabilitación... Terapia Ocupacional», «Instituciones Sanitarias Cerradas», «Institución Nosocomial⁴», «desviación acentuada de la normalidad psíquica», «irregularidades en el comercio del aceite». Hauek kasuan-kasuan aztertu beharko lirateke, itzulpena egiteko.

Ahalkearen tabuak sortarazten dituen eufemismoak.— Inoiz, Administrazioaren eufemismoa ahalke edo begirunearen tabuak sortarazia da: «exigencias fisiológicas».

Maitasunaren arlo semantikoko hitz erikideak saihesten dituzten adierazpen juridikoak.— Hizkera juridikoak maitasunaren alor semantikoko terminoak saihestu ohi dituela eta, Administrazioaren hizkerak adierazpen juridikoa nahiago du, hizkera arruntari dagokionaren aldean. Maitasunaren alor semantikoko hitz arruntak saihesten dituzten adierazpenak: «sociedad conyugal».

Izaki edota gauza heterogenoak biltzen dituzten eufemismoak.— Administrazioaren eufemismoa erabiltzen da, gauza edo izakari heterogenoak sartzen dituen terminoa erabiltzeko, zeinen gainean legetu edo xedatu nahi baita: «material rodante».

Administrazioaren hizkerak, lantzean behin, hizkera arrunteko terminoak erabiltzen ditu ekintza zigorgarriak adierazteko,

4. Ospitalea.

hala nola, «estafar», «robar» edo «matar», epaitzetan gertatzen denez, eta bestetzetan, ekintza berberetarako ingurukariak edo eufemismo kultuak erabiltzen ditu, «detraer», «organizar», «alterar» etab., beti ere ekintza hauek legearen aldetik zigortzeko modukoak ez direla edo horrelakorik onartu nahi ez duenean. Hala gertatzen da Administrazioak deritzen «irregularidades» horiekin, olioaren arazo ospetsuan.

Lexiko juridikoa.— Hizkera juridikoaren berezitasunaren gunea hitzen altxorrean datza gehienbat, ezen ez ezaugarri morfosintaktikoetan edo idazkera berezi batean. Horrela bada, gramatika eta idazkeraren aldeko ezaugarriak ezberdinak badira, Zuzenbidearen hizkera ezberdinetan (jurisprudenzian, foruan, Administrazioaren hizkeran, literatura zientifiko-juridikoan...), termino juridikoek berdin diraute euren balio semantikoarekin, eta euren arteko harremanen sortak aldaezin dirau guztietan.

Lexiko honek badu eginkizun berezia, hau da, esperientziaren funts diren oinarriko kontzeptuak eta Zuzenbidearen inguruko jakinduria metodikoa trinkotzea. Agerikoa da arrazoia: adierabakartasun semantikoa, lexikoa ahalik eta zuhurrena izatea eta, azken batean, kontzeptuen zehaztasuna, bai eta adituen arteko zehaztasun edo argitasun abiarua ere.

Beste hizkera tekniko batzuk ez bezala, Zuzenbideak bakarrik erabiltzen dituen hitzen kopurua urria da; kopururik ugariena lexiko arrunteko hitzena da, bai eta beste lexiko tekniko batzuetakoak ere, zeintzuk Zuzenbideak semantikoki modulatu baititu, berari dagozkion adierak emanaz. Honen badauka eragozpen bat: nahasgarri gerta

dakioke ez-adituari, beronek ezagutzen dituen adiera arruntetara itzultzera joko baitu. Badu, hala ere, abantaila bat: legearen hitzen esangura juridikoari dagokionez.

Beraz, legearen idazleak lau irizpide hartu beharko lituzke kontutan xedapen bat egiterakoan:

- Lexiko juridikoa nahitaezkoa dela.
- Terminologia juridikoak gizartean sustrai gotorrak dituela (hala nola, kontratu zibiletan eta familiaren zuzenbidean).
- Lexikoa azaldu behar duela, definizio eta deskripzioen laguntzaz.
- Azkenik, kontuz ibili behar dela sinonimoekin.

Jatorri ez-juridikoko lexiko tekniko.— Arauen terminologia tekniko, jatorri juridikotik ez ezik, beste batzuetatik ere dator. Hizkera juridikoak testuaniztasun lexikorantz jotzen du taigabe. Nahikoa da edozein aldizkari ofizial erreparatzea; honela bada, honako araudi hauek:

—teknikaren goi mailakoa:

«Orden de 28 de febrero de diciembre de 1988 sobre metrología por la que se regulan las seleccionadoras pondelares-automáticas.»

—teknikaren erdiko mailakoa:

«Orden de 2 de marzo de 1989 sobre pirotecnia, por la que se modifica la O. de 20 de octubre de 1988, que regula la manipulación y uso de artificios en la realización de espectáculos públicos de fuegos artificiales.»

Honenbestez, legezko hizkera izendegi eta taxonomia terminologikorik nabarrenak irensten dituen belakia bihurtu da.

Lexiko tekniko ez-juridikoa honako erregea honen arabera agertarazten da: *zenbat*

eta bereziagoa izan arauaren edukia, orduan zehatzago eta berezituago bihurtzen doa jasotzailea.

Honela bada, arautegi berezien ulergarritasunaren arazoa ez datza hiritarrek ezin ulertu horretan, berezko jasotzaileek eurek ulertu ezinean baizik.

Honek bagaramatza beste arazo batera: erregistroaren tonura, alegia. Administrazio hizkera hizkera juridikoaren erregistro berezia dela onartuta, ez dago eragozpenik bera modu ezberdinetan modulatzeko, adierazpide maila ezberdinak jasotzeko etab. Maila hauek jasotzaileen hizkuntz gaitasunaren arabera eta berauek harekin izan behar dituzten harremanen berehalakotasunaren eta maiztasunaren arabera daude. Esaterako, didaktismo ahaleginak lexiko teknikoa gailendu behar du errentaren gaineko zergan, baina ez sozietateen gaineko zergan, orobat gertatzen da zirkulazio kodeari eta garraio astunen arautegiari dagokienez.

Hizperriak.— Hizperriak mota bikoak izan daitezke: *lexikoak*, berritasuna ahots berria sortzea denean, eta *semantikoa*, hizperriak dagoeneko ahotsari esangura berria ematen dionean.

Hizperriek ez dute zertan izan hizkuntzaren hondatzaileak. Dena dela, hizkuntzaren kanpoaldetik dabilzan osagai lexiko guztiak ez dira barneratzen. Batzuek bakarrik zeharkatuko dute denboraren iragaztekoa.

Itzultzaileak kontuz ibili beharra dauka, hizperriei dagokienean. Legezko testuek, funtsean, iraun nahia dute eta euren burua behin-behinekotzat hartzen dutenentarik batzuek ehun urteak ere beteak dituzte, hala nola, 1870eko «Ley Orgánica Provisional del Poder Judicial», zeinek ehun urteak bete zi-

tuen indarrrik gabe utzia izan arte, 1985. urtean, uztailaren leku 6. legea onetsi zenean, alegia. Hau onartuta, lexikoa aukeratzean, denboragabetasunerantz jo behar da, ahalik eta hiztegi sustraituena hartzeko.

Beraz, Carles Duarteren proposamenei jarraituz, hizperriak honako beharkizun hauek bete beharko ditu:

1. Hizkuntz beharra, ideia bera aditzera ematen duen beste hitzik ez dagoelako hizkuntzan.
2. Eraginkortasun semantikoa (hots, esanguraren zehaztasuna) eta eratormena edo beste hitzak sortzeko bizitasuna (*zehaztapidetza*).
3. Gizartearen euskarria eta, ahal dela, hiztegi modernoetan jasota egotea [Espainiako Akademiaren Hiztegian, gaztelaniari gagozkiola].

Hala ere, azken eskakizun hau neurtu behar da, Akademia oso kontserbakoa baita, hizperriei dagokienez. Euskaraz, gizartean prestigioa duten hizperriak eta hiztegi modernoetan jasota dauden hitzetarik batzuk hartzera jo beharko du itzultzaileak. Espainieraz, berriz, baditugu zenbait hitz, Akademiak jasota ez edukiagatik, ezinbestekoak direnak, hala nola, «privatizar», zeinek herri sektoretik esku pribatuetara ondasunak igarotzeko bidea adierazten duen; berdin esan daiteke «ofertar», «presentar una oferta para contratar» adieran.

Kontuz ibili beharra dago, ordea, hizkiztapenez eratzen diren hizperriekin (geroago ikusiko denez), dela aurrizkia emendatuz («in-», «pre-» etab.), dela atzizkia jarritz («-al», «-ión», «-idad» etab.). Hizkuntzak berak asko irentsi du, hala nola, «reunir», «coordinar», «residual» etab. Hala ere, arriskutsua da hau,

zeren eta gramatikak dituen aurrizki eta atzizkiak beste hitz biderka baitaitezke hitzak.

Lexiko ortopediko honi aurre egin behar zaio, ezik hizkuntza desitxuratu eta absurdura darama. Esaterako, «privatizar» «reprivatizar» «desreprivatizar». Beste kasu lazgarri batzuk: «interdepartamental», «interadministrativo».

Hizperri semantikoei dagokiela, bakarrik esan, kontu handia izan behar dela administrazioetako organoen izendazioekin, bai eta Administrazioaren ekintzen egitarau berezietan ere.

Latinismo gordinak.— Latinismo gordintzat, latinetikojatorrizko grafia gordetzen dutenak aipatzen ditugu.

Beraz, kultismoak baino ez dira, baztertzekoak izango lirake legezko hizkeran, baina sarritan bizitasun, zehaztasun semantiko eta hizkuntz ekonomia handiagoak dituzte, euren dagozkien itzulpenek baino.

Horrenbestez, ez dago ezer jartzerik latinismoen erabileraren aurka, batez ere esakune laburrak direnak («apud acta», «a priori», «referendum», «curriculum», «mortis causa», «quorum», «venia docendi», «habeas corpus»...), ez ordea, brokardoak, berauen berezko tokia hizkera juridikoetan baitatza (abokatuaren literatura zientifikoa...). Lexiko juridikotzat hartu behar dira, erregistroaren tonuari egokitzeko ahalegina eginaz. Izan ere, «venia docendi» latinismo onargarria da unibertsitateko irakaslearen estatutuan, baina «apud acta», *Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legea*-n eta *Lan Prozedurari buruzko Legea*-n, didaktikaren menpean egon behar da: «el interesado podrá otorgar poderes apud acta, compareciendo ante el órgano que instruye el expediente...».

Definizioak.— Legezko hizkeran hainbat eta hainbat termino tekniko egonez gero, arauen euren definizioak argigarri gerta litezke?

1. Definizioek kontzeptu definituaren esangura teknikoaren gaineko zalantzak argi ditzakete, baina ez dute araua erabat zertan argitu, ezen eurak dira pentsamendu definitua antolatu eta adierazteko forma logikoaren emaitza. Esaterako, erka bitez honako definizio hauek:

"Por el contrato de compra y venta uno de los contratantes se obliga a entregar una cosa determinada y el otro a pagar por ella un precio cierto, en dinero o signo que lo represente". (Kode Zibileko 1445. art.).

"La zona básica de salud es el marco territorial de la atención primaria de salud donde desarrollan las actividades sanitarias los Centros de Salud, centros integrales de atención primaria" (Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorreko 63. art.).

2. Definizioen erabilera neurritzkoa izan behar da, terminologia juridiko-juridikoari dagokionean. Legeak jardule juridikoek interpretatu behar dituzte, ez legegileak. Oerka *berezitasun erregela*-k ezarri behar du: arau batek oinarrizko kontzeptu juridikoak definitu ahal eta behar izaten ditu, ez du ordea, araupeketa horretarako tresna den terminologia juridikoaren definizio orokorrik zertan eman. Erregela honen salbuespena Kode Zibileko 4.2. artikuluan dago, non interpretariari debekatzen zaion analogiaz baliatzea.

3. Terminologia tekniko ez-juridikoari dagokionez, berezitasun erregela hori sorospidez eta bakanago erabili behar da, bestela zuzenbide eta hiztegiaren eginkizunak nahastuko bailirateke. Bakanago, zeren eta arautzen den arloa zenbat eta berezituagoa izan,

orduan eta ugariagoak baitira definizioak. Sorospidez, zeren eta ezaguna dena ez baita zertan definitu, ez eta hiztegian adiera bakarra duena ere.

Eta, axaletik bada ere, Administrazioetako itzultzaileek aurkitzen dituzten arazorik behinenak emanaz amaitu nahi dut gaurko jarduna.

